

# gaz-teak



Doako alea

314 Zb.  
www.getxo.eus

>> 2017ko ekaina



## Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

- > 15 leku Bilbao Port-eko enpresetan praktikak egiteko
- > 2. Sostenibles.tv lehiaketa, tokiko esperientzia eraldatzaileak
- > Uda ate joka dator!

## Uda ate joka dator!

Honez gero udako oporrak prestatzen bazabiltza, Interrail txartelak 30 herrialdetako 40.000 tokiren artean aukeratzeko eta Europa tren ezagutzeko eskaintza egiten dizu. Txartelak, herrialde batzuk ezagutzeko edo oporrak herrialde bakar batean ematea ahalbidetzen du, 30 egunez, goitik jota. Bi txartel mota daude: Global Pass (30 herrialde bisitatzeko aukera ematen du) eta One Country Pass (28 herrialdetik bat bisitatzeko da); hainbat egun-konbinazio dituzte. Aipatutako azkenari lotuta, Interrail Islas Griegas Pass izeneko sartuta dago, eta horri esker irla greziarrak bisita daitezke ferryz.

Txartel motaren arabera, prezioa 206 eta 493€ artekoa da (bigarren maila, 12 eta 27 urte arteko gazteentzat) eta 267 eta 632€ artekoa (2. maila, 28 urtetik gorako helduentzat).

One Country Pass aukeraren barruan INTERAIL PREMIUM PASS txartela dago, apur bat gehiago ordainduta zenbait abantaila eskaintzen dituena: aldeztu aurretik trenetako eserlekuak dohainik erreserbatu ahal dira, taxi zerbitzu eta txangoetan deskontuak dira, eta belaunaldi askotariko bidaiak.

Horrez gainera, Rail Planner APPrekin treni buruzko informazioa bilatu ahal duzu, zauden tokian zaudela, eta Europako trenen irteera eta iritsiera orduak azkar eskuratzeko lagunduko dizu.

Horrez gainera, Rail Planner APPrekin treni buruzko informazioa bilatu ahal duzu, zauden tokian zaudela, eta Europako trenen irteera eta iritsiera orduak azkar eskuratzeko lagunduko dizu.



### Hesian taldearekin eguna pasatzeko zozketa

Gazte-txartelak Hesian musika taldearekin eguna pasatzeko aukera zozkatzen du (ekainaren 18an, *Araba Euskaraz dela* eta) irabazlearentzat eta berarekin joan daitezkeen hiru lagunentzat (gehienez). Irabazten baduzu, taldearen kamiseta eta taldeak sinatutako CDak eta lagun guztientzat lortuko duzu. Hesianekoekin pasatzeko egunaren zozketa Gazte-txarteldun berrien artean izango da: hau da, maiatzaren 12tik ekainaren 12a bitartean alta eman dutenen artean. Halere, sinatutako 10 CD zozkatuko dira edozein Gazte-txarteldunentzat. Informazio gehiago: [www.gazteaukera.euskadi.eus](http://www.gazteaukera.euskadi.eus)

## BEKAK SARIAK

\* **UPV/Eguren laguntzak 2016/2017 ikasturteko matrikula ordaintzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat.** Ikasleak unibertsitateko Gradua edo Masterra ikasten egon beharko dira; laguntzak eskuratzeko baldintzak: ikaslearen egoera ekonomikoa nabarmen aldatu izana ikasturtearen hasieratik edo egoera ekonomikoak denboran irautea; 2016/17 ikasturtean bestelako diru laguntzarik ez izatea. Eskara egiteko epea: ekainaren 7ra arte. Argibideak: <http://www.ehu.eus/eu/web/ikasleak/matrikulak-ordaintzeko-laguntzak>

\* **NBE bekak programa 2017** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak deituta UNICEFek Latinoamerikan eta Afrikan dituen bulegoetara joateko. 35 urte bete gabe duten EAEko gazteei zuzenduta, unibertsitate tituludunak, garapenerako lankidetzan formakuntza edo/eta esperientziadunak eta ingeles edo/eta frantses maila ona dutenak. Hautagaitzak jasotzeko epea ekainaren 5era arte dago zabalik [paisvasco@unicef.es](mailto:paisvasco@unicef.es) helbidean. Argibideak: [www.unicef.es](http://www.unicef.es).

### Gaztelekuaren programazioa

#### Ekaina

**Hilak 1, osteguna, 17, larunbata, eta 28, asteazkena:** ANIZTASUN SEXUALAREN HILABETE

**Hilak 2, ostirala:** LEHIAKETA: SING STAR

**Hilak 3, larunbata:** ESKULANA: LABAZKO LANPARA

**Hilak 8, osteguna:** TOPAKETA

**Hilak 10, larunbata:** MASTERCHEF LUDOTEKAREKIN: TALOA TXORIZOAREKIN

**Hilak 15, osteguna:** MASTERCHEF: PINTXOAK

**Hilak 16, ostirala:** ESKULANA: ESKUMUTURRAK

**Hilak 22, osteguna:** LEHIAKETA: PING-PON

**Hilak 24, larunbata:** IRTEERA: SNORKEL ETA PIRAGUA

**Hilak 30, ostirala:** IRTEERA: HONDARTZARA

GauEgun gazteleku



ENTRESAN PRAKTIKAK EGITEKO PROGRAMA

PROGRAMA DE PRÁCTICAS EN LA EMPRESA

2017 - 2018KO DEIALDIA

CONVOCATORIA 2017 - 2018

15 Plaza

15 Plazas



Eskaerak aurkezteko epea irailaren 5ean itxiko da

## 15 leku Bilbao Port-eko enpresetan praktikak egiteko

Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioak ezagutzera eman du 2017-2018 ikasturterako eskaintza enpresetan praktikak egiteko. Deialdia zabalik dago unibertsitate-ikasleentzat edo goi-mailako heziketa-zikloetan titulua duten gazteentzat, baldin eta nahitaezko baldintzak betetzen badituzte; besteak beste, honako hauek: 30 urte baino gutxiago izatea, ikasketak bukatuak izatea, ez izatea bere formazioari lotutako esperientzia kualifikaturik, aldeztu aurretik ez jaso izana lan-praktikaren beka bat eta langabezian egotea. Era berean, sartzeko aukera izango dute IKASLANi atxikitako

ikasleentzat edo Somorrostroko Lanbide Heziketako Ikastetxean matrikulatutako lanbide-heziketako goi-mailako zikloetako 2. urteko ikasleek ere, eta euskara eta ingeles maila egokiak dituztenak, helmugako arlo funtzionalaren arabera. Ezinbesteko baldintza da onuradun guztiak bizitzea Fundazioaren patrono diren itsasertzeko udalerriren batean: Getxo, Bilbo, Santurtzi, Erandio, Barakaldo, Portuagalete, Leioa, Sestao edo Zierbana.

2017-2018 ikasturterako praktikaldi-kopurua hamabostekoa da, 11 unibertsitate-prestakuntza dutenentzat eta 4 Lanbide Hezi-

ketako ikasketak dituztenentzat. Bilboko Portuko Agintaritzari dagokio banaketa egitea modalitate batean eta bestean. Horrez gain, hautagaiak aukeratzeko azken prozesua ere gidatuko du.

Praktikaldi guztiak Bilboko Portuko Agintaritzaren sailetako arlo funtzionalaren egingo dira. Izan ere, Portuko Agintaritzak programaren eskura jarriko ditu praktikak egokiro burutzeko behar diren baliabide guztiak, material, didaktiko zein tutoretzakoak.

Izena emateko epea irailaren 5ean itxiko da. Informazio gehiago: [http://www.fundazioa.bilbaoport.eus/eus\\_practicas.asp](http://www.fundazioa.bilbaoport.eus/eus_practicas.asp)

## 2. Sostenibles.tv lehiaketa, tokiko esperientzia eraldatzaileak

UNESCO Etxeak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera, lehiaketa bat abiarazi du bigarren aldiz, gure planetaren zaintzari eta herritik hasita Garapen Iraunkorrerako Munduko 2030 Agenda berriari ekarpen bat egingo dion egitasmorik onena saritzeko. Edozein pertsonak, elkartek, eskolak edo taldek parte har dezake SOSTenibles.tv lehiaketan. Horretarako, berria den edo Euskadin martxan dagoen bideo batean azaldu beharko dute buruan duten ideia, egitasmoa edo proiektua. Eta lotura izan beharko du NBEren Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuetako batekin.

2.000 € banatuko dira bi saritan, egitasmo irabazleak gauzatu ahal izateko; eta horiek herri-bozketa baten eta epaimahai aditu baten bitartez aukeratu dira (horrek egitasmorik onena aukeratu du herri-bozketan bozka gehien jaso dituzten 5 egitasmoen artean).

Informazioa eta oinarriak: [www.sostenibles.tv](http://www.sostenibles.tv) edo [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org); e-posta: [n.viota@unescoetxea.org](mailto:n.viota@unescoetxea.org). Tel.: 944276432.

